



ORANGOAN LIZARTZAK HARTUKO DU LEKUKOA

Larunbatean ekingo diete 2009ko Inauteriei, txekorraren gibel jatearekin; hilaren 15era arte luzatuko dira 7

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2009-02-04

VII. URTEA 1.620. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Belauntzako eliza ere berritzen ari dira egunotan; eskualdeko beste batzuetan ere obretan daude. IMANOL GARCIA

Erljio-ondarea berritzen ari dira eskualdeko herri askotan

TOLOSALDEA Asteasun orain dela gutxi amaitu dute teiltuarekin; Belauntzan, Leaburun eta Goiatzen lanean ari dira egunotan; Tolosan, Amasan eta Leaburun ere aurki hasiko dira 4

Korrika Kulturalaren baitan, bertsoa eta antzerkia uztarturik

TOLOSA 'Erregea eta bufoia' lana taularatuko dute larunbatean Leidorren 2

511.318 euroko diru laguntza jasoko du Udalak hainbat proiektu gauzatzeko

LEITZA Bost proposamen aurkeztu ditu Leitzak 7

Su-Berri pilota eskolakoentzat, emaitza gazi-gozoek

ANOETA Neskak lau txapelketetan ari dira 5

Aurrera-Saiatz, VI. Berria Txapelketan ariko da 3

LIBURUA SALGAI

Salmenta:

Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€	10 liburu 140€
-----------------	-------------------

Salmenta puntuak:

- Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako bulegoetan,
- Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburudendetan.
- Ibarako Lurdes liburudendan.
- Villabonako Basajaun liburudendan.



Bertsoa eta antzerkia uztartuko dira Korrika Kulturalako lehen ekitaldian

Kultura » 'Erregea eta bufoia' lana aurkeztuko dute larunbatean, Andoni Egañak, Ander Lipusek eta Unai Elizasak.

ERREDAKZIOA

Bertsolaria eta aktorea nor baino nor ariko dira larunbat honetan, *Erregea eta bufoia* izeneko emanaldian. Korrika Kulturalaren baitan, eskualdeko lehen dabiliko ekitaldia izango da hau. Ander Lipus antzezleak bufoiaren papera jokatu du eta Andoni Egaña bertsolariak, erregearena. Hirugarren kide bat ere izango du emanaldia, gai-jartzaile gisara ariko den Unai Elizasu, hain zuzen ere.

Bertsoa eta antzerkia lotzen dituen lana da *Erregea eta bufoia*. Hitzaren apainketatik jaiotako ekitaldia. Nork apaingotako ote du hitza hobeto da, erregea eta bufoiaren arteko borroka honetan espermentatu nahi den jolasa. Erregea hainbat pertsonaiez baliatuko da bufoiaren hitzei aurre egiteko, eta bufoiak berri, erregearekin jolastu nahi izango du, burla eta trufa eginez. Baina ez du lan erraza izango, bertsolaria errege baita hitzarekin jolasean.

Bertsoa eta antzerkia, antzezlea eta bertsolaria. Noergehiagok honetan gehiago nor izango den larunbatean, 22:00etatik aurrera ikusi ahal izango da Leidor antzokian. Tokian tokiko herrira eta egoeratarazaldunak prestatutako gaiek, erabateko bapatekotasuna emango dio emanaldiari. Lan horretan ariko da, lehen aipatu bezala, Unai Elizasu.

Ikuskizunaz gozatu nahi duenak 10 eurotan eros ditzake sarreak Leidor antzokian, ostiralera bitartean. Egunean bertan bertan, antzokiko leihatilan, ordu erdi lehenagotik. Korrika laguntzaile diren ikusleek euro bat merkeago erosi ahal izango dute sarrera. Bestalde, Korrikako arropa eta materiala erosi nahi duen orok ere aukera izango du, Leidorren bertan antzerkiaren aurretik, nahiz ondoren.



Korrika Kulturalaren baitan, 14. Korrika ospatu zenean, Ander Lipus Leidorren izan zen, 'Ezekiel' lana aurkezten. HITZA

Korrika Kulturalaren jatorria

Euskal kultura bultzatzea eta euskaraz gizaratearen esparru guztietara eramatea dira AEKren helburuak. AEKren konpromisoa hamaika egitasmo eta ekitalditan gauzatu da orain arte eta horietako bat da Korrika Kulturala ere. Izan ere, AEKren ustez, egokia eta bidezkoa da Korrikari esker lortzen diren diru baliabideen zati bat onura ekonomikorik ez dakarten baina gizarate-onura bilatzen duten ekimenetan inbertitzea. Ondorioz, euskarazko arte eszenikoak bultzatu, euskal sortzaile berriei bidea egin eta Korrika kulturalaren zein bestelako kultur ekimenetan jendaurrean aurkez daitezkeen lanak sortzen laguntzea du xede Korrika Kulturalak.

Programazio nazionalaren barnean, Korrika Kulturalak otsaila eta martxo bitartean estreinatuko diren zenbait kultur emanaldi bildu ditu. Bete ere ahalik eta kultur alor gehien jorratzeko eta euskarazko kultur sorkuntza bultzatzeko asmo argia adierazten du Korrika Kulturalak.

Joan den larunbatean ospatu zuten aurtengo Korrika Kulturalako lehen ekimena. Hala, Benito Lertxundik kontzertua eskaini zuten

Korrikaren helmugako hiri izango denean, Gasteizen. Azken ekitaldia ere bertan izango da, Korrika 16aren azken egunean, apirilaren 5ean. Soka, Atxikistan eta Betagarrri izango dira helmugaratzea ospatzeko.

Korrika Kulturalaren jatorria

Geroz eta hurbilago da Euskal Herria osoa zeharkatzen duen euskararen aldeko Korrika ekimenaren 16. edizioa. *Ongi etorri* lelopean Tuteratik Gasteizerako bidea egingo du. Martxoaren 26tik apirilaren 5era bitartean ibiliko da lekukoa herriz herriz, eta eskuz esku. 2.000 kilometro baino gehiago zeharkatuko dira euskararen alde, adin eta mota guztietako milaka korrikalariarekin, gau eta egun gelditu gabe.

Lasterketa erraldoi honek euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta gaur-eguneko euskaltzaren eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu. 1980an Euskal Herria Oñatitik Bilbora zeharkatu zuen 1. Korrika antolatuta zenetik, euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuenetakoa da. Ordudunik 15 Korrika eta 28 urte igarodira.



Ikuskizunaren kartel iragarlea. HITZA

» ZENBAIT DATU

- **Izenburua.** *Erregea eta bufoia*.
- **Eguna.** Otsailak 7, larunbata.
- **Ordua.** 22:00.
- **Tokia.** Leidor antzokia.
- **Sarrerak.** 10 eurotan (Korrika laguntzaileek 9 eurotan eskuratu ahal izango dituzte). Otsailaren 6a baino lehen Leidorren bertan salgai. Egunean bertan, saioa hasi baino ordu erdi lehenago jarriko dira salgai.
- **Antolatzailea.** Korrika Kulturala.
- **Erregea.** Andoni Egaña.
- **Bufoia.** Ander Lipus.
- **Gai-jartzailea.** Unai Elizasu.

Pello Odriozola askatzeko eskatuko dute kantuan gaur iluntzean

Politika

Bezpera delako gaur, hilabeteroko mobilizazioa aurreratzea erabaki dute.

ERREDAKZIOA

Lizardi Kultur Elkartekoek deituta hilaren lehendabiziko ostegunero elkarretaratzea egiten dute bertako bazkidea den Pello Odriozola Agirre euskal presoaren askatasuna eskatzeko. Dagoeneko 21 urte daramatza kartzelan. Oraingo honetan, hala ere, Santa Ageda Bezpera denez, eta elkartekoek kantuan ateratzeko ohitura dutenez, Lizardikoek, ekitaldia egun bat lehenago egitea erabaki dute, hau da, gaur.

Honen bestez, gaur 19:15etik 19:45era egingo dute elkarretaratzea Plaza Zaharrean. Bertan izango dira mokadu bat eginez. Tripa berdin du ostean kantuan hasiko dira. Estreinako kanta Pello Odriozolaren omenez egingo dute eta Koldo Zelaia bertsolariaren saioa ere bere alde izango da.

Laburrak

Hauteskundeetaz hitz egiteko batzarra, bihar

POLITIKA ● Ezker abertzaleak batzarra deitu du biharko. Bilerak 20:00etan izango da, Kultur Etxean. Bertan martxo hauteskundeen inguruan mintzatuko dira. Bestalde, «bizi dugun egoera dela eta» garrantzitsutzat jotzen dute gaurko batzarra.

Txarangen bilerara deitu du gaurko Jai Batzordeak

AISIA ● Inauteriak ia gainean ditugun honetan, Jai Batzordeak deituta txarangen bilera izango da gaur iluntzean, jaietarako dena prestatu ahal izateko. Tolosako Kultur Etxean izango da ekitaldia, 19:00etatik aurrera.

H Urteurrena

I. urteurrena KOLDO ALTONA AZURMENDI

Haimar Altuna euskal preso politikoaaren aita

Haizeak dakarki gugana, aita zure hegaldien indarra gure bihotzeko basoetan zenuen erein maitasuna ta garra ziur izan, erakutsi zenigun bideak izango duela biharko irrifarra zaren bezalakoak egin baitu gure zeruetan, bizitzaren izarra Agur eta ohore aita!
Maite zaitugu!

Josune, Haimar, Olatz, Ira eta Ekiñe



ORENDAIN
2009ko
otsailaren 4a

Haren aldeko elizkizuna larunbatean, otsailaren 7an, izango da Orendaingo elizan 12:30ean.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Igandean Aurrera-Saiazen txanda izango da VI. Berria Txapelketan

Pilota » Goizuetan jokatuko dute Arrasateren kontra; Zazpi-Itturrik hilaren 20ko asteburuan jokatu du.

NEREA URBIZU

VI. Berria Pilota Txapelketa urte hasieran hasi zen. Aurrera-Saiaz eta Zazpi-Itturri pilota eskolak ariko dira bertan, eta oraingoan, Aurrera-Saiazen txanda izango da, asteburu honetan bertan. Igandean Goizuetan jokatuko dute, 11:00etan hasita. Hauek dira igandean Aurrera-Saiaz ordezkatuko duten sei pilotariak: Labaka-Arratibel kadeteetan, Apezetxea-Zinkunegi gazteetan eta Renobales-E. Galarraga nagusietan. «Apezetxea goizuetarra da eta ilusioa egiten zion bertan jokatzeko, horregatik egingo dugu han. Eta zergatik ez? Bertako pilota-zalatasuna sustatzeko balioko du».

Galarraga Aurrera-Saiaz pilota eskolako ordezkarieren ustetan partidak Arrasateren kontra «gogorrak izango dira, batez ere gazteen eta nagusien artekoan. Beti ere, aurreko jardunaldian ateratako jokalariek badaude behintzat».

Amezketako Zazpi-Itturrik hilaren 20ko asteburuan jokatu du baina zehazteke dagoen taldearen kontra. Danok Lagunak eta TxumuluXueta pilota eskolen artean dago aurkaria: kontua da, duela hamar bat egun izandako zi-



laz, Tolosako Beotibar pilotalekuan, Aurrera-Saiaz eta Ernioeren arteko norgehiagoka batean. N. URBIZU

kloiarengatik bertan behera gelditu zela bi hauen arteko norgehiagoka, eta seguruenik, asteburu honetan jokatuko dute Hermanin.

Aurrera-Saiaz ere antolaketa

Euskal Herri osoko 24 elkarte hasi ziren txapelketan, baina dagoeneko batzuk kanpoan dira. Finala martxoak azken asteburuan jokatu du da Hermanin. Hasiera batean Hermanin eta Tolosan jokatu du dira norgehiagokak.

Hiru antolatzaile ditu txapelketak, tartean Aurrera-Saiaz pilota eskolako Andres Aramendi: EKT-ko zuzendaria nagusi Joan Mari Larrarte eta *Berriaren* ordezkarri An-

doni Alvarez dira beste bi antolatzaileak. Larrartek nabarmendu zuen «ohorea» dela txapelketa antolatzea, «nazio ikuspegia duelako eta nazio osoko elkarteak biltzen dituelako».

Bi irabaziz gero, aurrera

Aurreko bost txapelketetan bezala, kadeteak, gazteak eta seniorrak ariko dira, eta binaka. Kanporaketaz kanporaketa jokatu da lehia-keta, baina aldaketa esanguratsua bat dago: aurrera zein elkartek egingo duen erabakitzeke ez da kontuan hartuko tanto kopurua; bi partidak irabazten dituenak jarraituko du. Rekaldek azaldu bezala,

«bestelapartidak ez galtzera ateratzen ziren, batez ere kadeteetan, ikuskizunaren kaltetan».

Berriatik kanpo ere bai

Bestalde, Aurrera-Saiazko Onsalo-Arrastoa eta Renobales-K. Galarraga bikoteek gaur Doneztebe-ko Txapelketan ariko dira, bakoitza dagokion bikote aurkariarekin. Finalaurrea jokatu behar dute bi bikoteek. Beraz, aukeren artean dago pilota eskola bereko bi bikoteen arteko final bat ikustea.

Zazpi-Itturrikoak, Aurrera-Saiazekoak bezala, asteazken zehar ari dira asteburuan jokatu ez zituzten partidak jokatzen.

'Udalhitz' izeneko hitzarmena ezarriko diete udal langileei

Ibarra » Hitzarmenak soldaten %2,9ko igoera aurreikusten du; kargu politikoaren kasuan, hala ere, izoztu egingo dituzte.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak udal langileei *Udalhitz* izeneko hitzarmena aplikatzea onartu zuen atzo egindako osoko bilkuran. Kargu politikoaren soldatak, hala ere, izoztu egingo dituztela adostu zuten «egungo krisi ekonomikoaren egoera zailari» erantzun asmoz.

Horiek horrela, Eudel (Euskadiko Udalen Elkarteak) eta ELA, UGT eta CCOO sindikatuek adosturiko hitzarmen honen aplikazioak udaleko langileei aurten soldaten % 2,9 igoera ekarriko die, hau da, KPia gehi puntu bat. «Udalak Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako % 1,9ko KPia kontuan hartzea erabaki du, Eudelek finkatutako % 1,4aren ordez», argitu du zentzu honetan Udalak.

Kargu politikoaren soldata

Bestalde, osoko bilkurak kargu politikoaren soldata izoztea erabaki zuen. «Neurri honen ibarretarrekin solidarizatzeko borondatea erakutsi nahi dugu», argitu dute.

Era berean, osoko bilkuran datorren martxoaren Ieko hauteskunde autonomikoetara begira, hauteskunde-mahaia eratzeko ere onartu zuten.

S Soka motzean

«Tolosara bizia duen herria eta euskalduna delako etorri naiz»

AINARA ARIZMENDI

Administraria

NEREA URBIZU

Donostian jaio eta Añorgan bizitakoa (1976). Orain, Tolosan bizi da.

Zergatik etorri zinen Tolosara?

Bizia duen herria dela iruditzen zaidalako (beti dago ekitaldirien bat) eta euskalduna da. Berez ezagunik ez neukan...

Donostiako Danborrada ala Tolosako Inauteriak?

Donostiara izanda, Danborrada bai baina nahiago Inauteriak. Tolosak duen onena?

Ez dut hainbeste ezagutzen hori esateko...

Donostiara joateko nola konbentzitu pertsona bat?

Txoko polit asko ditu: hondartzak, Haizearen orrazia...

Lanean asko aguantatzea egokitzen zaizu?

Ez hainbeste.

Afari batean zer edango zenuke?

Sagardoa.

Xaxuak ala teilak?

Teilak.

Noñostiarra ala donostiarrak?

Donostiarrak!



HITZA

L Laburrak

Eskolan izena emateko, datozen bi ostiraletan

LARRAUL » Datorren ikasturteari begira izen-emate epea zabaldu dute Larraulen. Etzi eta hilaren 13an eman ahal izango da 15:00etatik 16:00etara bitarte. Ikasgelak ikusteko aukera izango da ere, aurreikusten duten planaren berri emateaz gain. 943 693 794 telefono zenbakian informazio gehiago eskura daiteke.

Pello Errota herri ikastetxean izen-ematea

ASTEASU » Asteasuko Pello Errota herri ikastetxean matrikula egiteko epea zabalik dago hilaren 13ra arte. Eraman beharreko paperak hauek dira: familia liburuak, aita-ama edo lege-tutorearen NANren fotokopia, osakidetzako txartelaren fotokopia, errolda ziurtagiria eta kontu korrontearren zenbakia. 09:15etik 11:30era eta 15:00etatik 16:00etara egin daiteke bertan (943 692 215).

'Leonera' filma ikusgai, bihar zine-forum saioan

TOLOSA » Bihar Tolosako Leidor antzokian, zine-forum saio berri bat izango da. Oraingoan Pablo Trapero zuzendariaren *Leonera* filma emango dute, eta, ohi bezala, bi saio egingo dituzte, 19:15ean lehenengo eta 21:45ean bigarren. Filma honetako aktore nagusiak Martina Gusman, Rodrigo Santoro eta Elli Medeiros dira.

'Gari lanak Errezilen' hitzaldia bihar KZgunean

LIZARTZA » Biharkoan, hitzaldi bat antolatu dute; hain zuzen, *Gari lanak Errezilen* izenburupean Atala taldeko Gorka Tolosak landuko du hitzaldia. KZgunean izango da, 19:00etatik aurrera. Aipatu hitzaldiak ordu bete inguru iraungo du eta ikus-entzunezko bat ere aurkeztuko du Tolosak. Bertan uzta garaia, lanabesak, gari motak eta lanabesak... bezalako gaiak jorratuko ditu.

Eskualdeko erlijio-ondarea berritzen

Ondarea » Elizak berritzen ari dira Tolosaldean; Asteasun orain gutxi amaitu dute eta Belauntza, Larraul eta Goiatzen lanean ari dira egunotan.

IMANOL GARCIA

Tolosaldean hainbat herritan erlijio-ondarea berritzen ari dira edo berritzeko asmoa dute. Batez ere elizetan ari dira berrikuntzak egiten. Donostiako Gotzaitegian Ondare eta Arte sailaren arduraduna den Koldo Apestegek azaldu duenez, Asteasun burutu dute teila-tuaren berritzea eta Larraulgo, Be-

launtzako eta Goiatz auzoko elizetan berrikuntzak egiten ari dira. Horretaz gain Tolosan, Amasan eta Leaburun ere obretan izango dira aurki.

Asteasun, esan bezala, teilatua berritu diote elizari. Honi erantsita dagoen etxea Udalarena da eta elizbarrutiak espero du bertako teilatua ere berrituko dutela. Be-

launtzako elizaren teilatua, e-
struktura, zorua eta argia eraberritzen ari dira. Larraulen elizari zein atariari teilatua berria jartzen ari zaie. Bidegoiango Goiatz auzokoa ere teilatua eraberritzen ari dira. Azken hiru hauetan aldamiok ikusgai dira egunotan.

Aurrera begira, Leaburuko elizaren teilatua aldatzeko asmoa dute. Tolosan ere aldatetako aurreikusten dituzte. Santa Maria parrokiako organoa eraberrituko dute eta Santa Klara komentuko fatxadaren eraberritzea eta garbitzea egingo dute. Amasako eliza-

ren erretaula nagusia ere berrituko dute, baina hori seguruenak datoren urtean izango da.

Koldo Apestegek azaltzen duenez «teilatutik hasi eta gero poliki-poliki dorreak, atariak, erretaula... berritzen joaten gara. Hainbeste eliza eta handiak daude, lan asko suposatzen duela».

Aurrekontu handiak

Gastu handia suposatzen du ondare hauetako guztietako mantentze lanak eta Diputazioak kostuaren zati garrantzitsua hartzen du bere gain. Herri txikiak direnean %70

izaten da Diputazioak jartzen duena. Falta den %30a, hiru zatitan banatu ohi da: Udala, Gotzaitegia eta herritarrak. «Diru laguntza publiko beharrezkoa da», dio Apestegek.

Zenbakeri begiratuz, Asteasuko obraren aurrekontua 200.000 euro ingurukoa da; Larraulgoa 255.000 eurokoa; Belauntzako 500.000 eurokoa eta Goiatzekoa 305.000 eurokoa. Aurrera begirako proiektuetan, Tolosako Santa Maria parrokiako organoaren aurrekontua 200.000 eurokoa da eta Santa Klarakoa 150.000 eurokoa.



Larraulgo elizan (ezkerrean) eta Goiatz auzoko elizan (eskuian) aldamiok jarritu dituzte egunotan. I. GARCIA/E. EZEIZA



Asteasuko Elizmendi auzoan dagoen parrokiari teilatua eraberritu diote. I. GARCIA

Emaitza gazi-gozaok asteburu honetan Su-Berrikoentzat



Su-Berriko pilotariak asteburuko Diario Vasco Saria partidan. HITZA

Pilota » Lau txapelketetan aritu ziren eta guztietan ere «pilotarien maila altua» nabarmendu dute pilota elkarte arduradunek.

» EMAITZAK

Euskadiko Elkarten Arteko Txapelketa (ezker horman)
Tornosolo-Su-Berri 9-30
Su-Berri-Aiara 2-0

ERREDAKZIOA

Asteburu gogorra zuten aurretik Su-Berri pilota eskolako neskek, baina oro har «maila altuarekin eta emaitza onekin» erantzun diete euren partidei. Lau txapelketa desberdinetan ari dira parte hartzen.

■Euskadiko Elkarten Arteko Txapelketa ezker horman, nagusi mailan, bi partid izan zituzten, bietan ere Su-Berrikoak gailendu zirelarik. Lehenengoan, «Itsaso Urkizu eta Nagore Arozenak ez zuten aurkari handirik izan Mallabian. Partida oso erraz irabazi zuten». Bigarrenengoan, Ainhoa Garmendiak bere lehenengo partida jokatu zuen Euskadiko txapelketan. «Oso ondo aritu zen aurrelari lanetan».

Emaitza hauek lortuta, datorren asteburuan atsedena izango dute eta otsailean finalerdia jokatu dituzte joan-etorrian.

Emakumea Pilotari Irekia

Zorte txarragoa izan zuen Emakumea Pilotari Irekian ari den bikoteak, Hernaniko bikotearen aurka

Egian ospaturiko Diario Vasco Sariaren bi partidak «nahiko gogorrrak» izan ziren, batez ere lehenengoan. Partida honetan Su-Berriko bi pilotarik jokatzeko zuten elkarrean aurka, eta oraingoan Patri Espinar eta Oihana Unanuek irabazi zuten. Espinarrek «oso partida ona» jokatu zuen, batez ere ezkerrez izugarritzko pilotakadak jo baitzituen eta Nagore Arozena atzera eta aurrera mugitu arazi zuen, behin baino gehiagotan pilota errebota boteaz. Unanuek ere oso partida borobila jokatu zuen, Arozenak, aldiz, behin eta berriz ezin izan zuen pilota nahi bezala mugitu eta ondorioz ezin 30 tantotara iritsi.

Bigarrenengoan, huts egite ugari

Bigarren partidaren pilotakada handiak ikusi ziren arren huts egite ugari ere tartekatu ziren. Itsaso Urkizu nahiko gaizki hasi zen, beragan ez ohikoak diren huts egitekin. Ainhoa Montes bikotea ere nahiko urduri hasi zen, baina partida aurrera zihoa heinean bere tokia hartzen joan zen eta azkenean lan txukuna egitea lortu zuen. Hala ere, partida irabaztea lortu zuten eta beraz, finalerdietarako lehenengo pausoa eman zuten.

Gaur, Agate Deunari abestuko diote

ERREDAKZIOA

Gaur, Santa Ageda Bezperan, abesbatza, talde eta elkarte ugari aterako dira kantuan eskualdean. Besteak beste, eta aurrez aipaturiko beste herrietan bezalaxe, Tolosan, Villabonan eta Asteasun ere herritarrek ohiturari eutsiko diote eta makila eta artzain jantzia hartuta herriko kaleetan ariko dira abesten.

Tolosan, esaterako, herriko elkarteen esku geratuko da makila astintzeko lana. Hala, Emendekelkatea Amorotzen ariko da abesten. Olarraingo Zentroak, berriz, izen bereko auzoko baserri eta txokoetan ariko dira eskean.

Alde Zaharreko kaleetan barrena, aldiz, talde bat baino gehiago ariko da Santa Agedari abestuz. Batetik, Gure Txokoako ariko dira eta, bestetik, Kabi Alai, Gure Kaiola eta Urdiña Txiki elkarteak. Azken hiru hauek elkarrekin abestuko dute.

Villabonako Eresargi abesbatzak ere herriko kaleak alaituko

ditu. 19:00etan abiatuko dira musika eskolatik. Edozeinek har dezake parte bertan eta abesbatzatik deialdia egin dute, nahi duen oro artzain jantziarekin ager dadila musika eskolara bertara, 18:30ean.

Asteasun, euskal presoen alde

Asteasun ere aterako dira kantari. Horretarako bi deialdi egin dituzte. Lehen hitzordua 15:15ean izango da, herriko plazan. Bigarren hitzordua, berriz, 18:30ean izango da, leku berean. Kantuan biltzen duten dirua Euskal Presoen laguntzarako emango dutela jakinarazi dute. Hala, «Asteasuko Ezker Abertzaleak herritar guztiei gonbitea luzatzen diete parte har dezaten».

Alegian ere kantuan aterako dira, kasu honetan, Txintxarri abesbatzakoak. 19:15etik aurrera santa-eskean ibiliko da Alegiako auzo eta kaleetan zehar. Larraitz auzotik, Kurpil kafetegia ondotik irtingo dira. Artzaiz jantzita izango dira.

Emakumea Pilotari Irekia

Tijero Gutierrez/
Garmendia-Echave 30-26

Iparraldeko Liga trinketean

Su-Berri-SPUC 1 30-23

Emakumezkoen 2. El Diario Vasco Saria

Elguezabal-Arozena/
Espinar-Serre 26-30
Etchelecu-Argain
Urkizu-Montes 24-30

galdu baitzuen (30-26). Ainhoa Garmendiak partida hau Itxaso Echaverekin jokatu behar izan zuen, Oihana Garayalde bere bikoteak ezin baitzuen jokatu. Partida estua izan zen baina azken huts egite batzuk medio, ezin izan zuten garaipenik lortu.

Egian, lehen partida gogorra

Iparraldeko Ligan trinketean, berriz, Su-Berrikoak fin aritu ziren eta Senperoko SPUC ien aurka irabaztea lortu zuten. Hala, Itsaso Urkizuk eta Nagore Arozenak modu ezin hobean hasi dute Iparraldeko txapelketa.

Orain, inoiz baino gehiago, esperientzia handiko Lehendakaria behar dugu, krisialditik aterako gaituena. Pertsonengan pentsatzen duena eta mundu osoari irekia den nortasuna defendatuko duena. Berdintasunaren alde lan egingo duena. Gure herriarentzako bakea bilatuko duena.

Zuk nahi duzun Euskadi izan dezagun. Orain, inoiz baino gehiago, Ibarretxe behar dugu.

ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO

Txekorraren gibel jatearekin ekingo diete Inauteriei larunbatean

Lizartza » 12:00etan hasiko dira Inauteriak ospatzen eta Ijito Erretzearekin amaituko dira hilaren 15an.

REBEKA CALVO

Lizartzako Inauteriak eraldatzen joan dira azken urteetan. Garai batean Zaldunita, Astelena eta As-teartetita egunetan ospatzen ziren, baina «Tolosako Inauteriek dena jaten dute» eta azken urteetan herriko jai egunak aurreratu beharrean egon dira. Aurten Lizartzako Inauteriak larunbat honetan, hilak 7, hasiko dira eta datorren asteburuan jarraituko dute.

Daten aldatzeak, hala ere, ez ditu ohitura zaharrak baztertu, izan ere, «ohitura zaharrak berreskuratzeko ahalegina» egiten ari direla esan du Iñaki Zubeldiak, Otsolar dantza taldeko kideak.

Lehen Inauterien etorrera txekorraren gibel jateak iragartzzen zuen; «txekorra plazan bertan hil-

tzten genuen, gibela atera, elkartera eraman eta han sukaldatu eta gero partitzen genuen, orain ordea, hiltzean hiltzen dugu, nahiz eta gero plazan banatzen dugun elkarrean egindako gibela», esan du Zubeldiak.

Txekorra plazan

Larunbat honetan, hortaz, txekorra ikusi ahal izango da lehenik eta behin plazan, eta gibelaren jatea 12:00etan egingo dute. Bertan, herriko talde batek antzerkia eskainiko du, Udaltzara eta herritarrak adi-adi begira izango dituztelarik.

Txistulariak, txarangak eta musika ere izango da nonahi eta baita gazteen eta emakume talde baten dantzak ikusteko parada ere. Bazkaria izango da ondoren elkarrean.

Jai egunak datorren asteburura ere luzatuko dira. Ostiralean, 14:15ean, eskolak antolatutako mozorro festa izango da, kalejiran herritik ibiliko direlarik. Larunbatean, hilak 14, urteroko egitarauarekin jarraituko dute, nahiz eta aurten, aldaketa bat ere badagoen: «Bazkaria pilotalekuan izango da

denak elkarrekin bazkaldu ahal izateko». Eguna oso goiz hasiko da lizartzarrentzat, 07:00etan, orduan joango baitira, ohiturak jarraituz, baserriz-baserriz puskak biltzen. Plazatik abiatuko dira txantxo eta txistulariak eta handik egingo dute herrian zehar ibilaldia.

Ondoren, 09:30 inguruan, Etxe Zahar baserrian gosalduko dute biltzen diren guztiak. 12:00etan edo elkartuko dira puskak biltzera aritu direnak mozorro gurdia, dantzari eta Udaltzazarekin eta handi-

dik joango dira denak, kalejiran, pilotalekura bazkaltzera. 18:00ak inguru bueltatuko dira plazara eta han etxeetako sagardoa eta taloak dastatzeko aukera izango da. Bonberenea Txaranga ere gerturatuko da Lizartzara.

Noski bien bitartean musika eta jai giroa izango da herriko bazter guztietan; «txarangak izango dira, txistulariak... oso giro polita izaten da», esan du Otsolarreko kideak.

Igandean amaituko dira Inauteriak. Meza izango da eta ondoren

hamaiketako egingo dute plazan; «herri guztia gerturatzen da eta salda beroa, haragi egosia, txori-zoa... banatzen ditugu».

Kaleko puska biltzea, igandean

Larunbatean baserriz baserriz puskak biltzen egon eta gero igandean kalekoak biltzeko garaia izango da eta hori egin eta gero plazan bilduko dira guztiak, 13:00etan. Plazan Otsolar dantza taldekoak Ihaute Dantzak eskainiko dituzte eta handik pilotalekura joango dira hasi bezala bukatzeko; txekorra dastatzen. Bazkalostean, hala ere, dantzak, dultzaineroak, txarangak izango dira, baita sari eta zozketak ere.

Inauteriak ijito erretzearekin amaituko dira, 20:30ak inguru.



lako Inauterietako Otsolar dantza taldeko haurren emanaldia. A. IMAZ

H Gutuna

Aurten ere, Bartolaren nahia herritarren jaia!

Iritsi da 2009. urtea, eta berarekin, 2009ko Bartoloak antolatzen hasitako garaia.

Bartola festa batzordea osatzen dugunok pasa den urtean egin genuen hautuarekin jarraitzeko erabakia hartu dugu, ezinbestean. Udalararen jarrera, ez da ezertan aldatu, herritarrak baztertzan jarraitzen dute egunerokotasunean, ez gara ezer eurentzat, bost axolaz ia herritarrok esaten duguna.

Baztertuak gara behin eta berri, zerrenda bozkatuena izan zen alderdiari atea itxi dizkiete, hartutako erabakien berri izan ez deitzen, herritarrok ere ezin dugu jadanik osoko bilkuretan parte hartu, goizean goiz egitea erabaki baitute; herriko zerbitzuak pribat-

tizatzeari ekin diote buru-belarri. Eta nola ahaztu bada herrian hain mingarriak izan diren hainbat eta hainbat erabaki: Haur eskolaren afera, Txontxo baserria isilpean eraustea, beraien preso senideak bisitatzeke ehundaka kilometro egin behar dituzten senideei diru laguntzak ukatzea ez dira ez arazo gutxi.

Horretara etorri zen Bartola gure artera, herritarren hitzaren bozgoragailu izatera, festa giroan. Eta ez dago zalantzarik, Ibarrak harera bikaina egin dio Bartolari. Pasa den urteko festetan argi ikusi genuen, bertan izan zen parte hartzeak aurrera jarraitzea bultzatzen gintuela, herriak Bartolaren beharra zuela, eta herritik herritaz izango diren festak nahi ditugula.

Eta horregatik gatzoz aurten ere, herri guztiari egindako gonbida-

pen batekin. Garaia heldu da 2009ko festak antolatzen hasteko, buruari buelta batzuku eman eta guztion artean gure festak antolatzeko. Guztiok gaude gonbidatuta, guztiok hartu dezakegu parte Bartola Festa Batzordean, guztiok dugu zeresana, guztion artean, posible da!

Beraz, datorren ostegunean, hilak 5 zita bat dugu guztiok Ibarrako Kultur Etxean, 19:30ean.

Ala eta nola ahaztu etxeko txikienetaz! Guraso zaretan ere bertan parte hartu nahi baduzue ez izan zalantzarik, agertu eta utzi haurrak Kultur etxean bertan antolatutako dugun Bartola Ludotekan! Primeran pasatuko dugu guztiok!

Herritik herriarentzat!
Eider Ijurko, Bartola Festa Batzordearen izenean.



0-3 urte bitarteko haurren heziketa

IBARRA » Gasteizko haur eskoletako Montse Meana eta Lourdes Garijo hezitzaileak gerturatu ziren atzo Ibarrara Uzturpe ikastolak antolatutako Kultur Astearen harira. Bi hezitzaileek 0-3 haurren heziketa estilo berri bat hitzaldia eskaini zuten. Izan ere, Estilo desberdina duen haurreskola zentroan ari dira buru-belarri lanean, Ibarrako haur eskolak ere garatzen duen heziketa mota jarraitzen duena. Etxearen eta eskolaren arteko zubi lana egiten dute, umeei salto hori ahal den eramangarriren egiteko. I. GARCIA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigigarbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene 695 708 271 edo 638 944 604.

@ Eztabaida. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN webgunean zuen iritzia jaso nahi ditugu. Aste honetako eztabaida hau da: Krisia dela eta, aldatuko al duzu mozorroa egiteko modua? Alegia, beste urte batzuetako zerbait erabiliko duzu, zaharren bat zertxobait aldatuko duzu? ala dena berria erosiko duzu?

www.tolosaldeko-hitza.info

Leitzak 511.318 euroko diru laguntza jasoko du hainbat proiektu egiteko

Ekonomia » Xabier Zabalok, Leitzako alkateak, puntuz puntu aztertu ditu herrian egingo diren erreformak eta ekintzak.

ASIERIMAZ

Espainiako Gobernuak 2008ko azaroaren 28an 9/2008 Lege-Dekretua onartu zuen. Honen arabera, estatuak diru poltsa bat sortuko zuen herri eta hirietan inbertsioak egiteko eta lanpostuak sortzeko.

Lege-Dekretu edo neurri honen baitan, udaletxeek euren herrietan egin beharreko proiektuak aurkezteko aukera zuten, eta Leitzak horrela egin zuen.

Urtarrilaren 29an eta 30ean, proiektu horiek onartuak izan zi-

ren eta honen ondorioz, 511.318,99 euroko diru laguntza jasoko du Leitzak.

«Udalak oso itota»

Xabier Zabalok, Leitzako alkateak, aurkeztutako erreforma proposamenak bilkuran aho batez onartu zirela aipatu du. Horretaz gain, biztanle kopuruaren arabera Leitzari diru hori egokitzen zitzaiola jakinerazi du eta, «Udala kopuru horretara egokitu da».

Espainiako Gobernuak sortutako diru poltsa honetatik laguntza jasotzeko arrazoia, udaletxeek dituzten finantziario arazoetan oinarritu du Zabalok: «Diru beharra? Bai, dudarik gabe. Nire ustez udal gehienek dituzte arazoak sentzutu honetan, ez daude oso ongi finantziaturik. Gure kasua ere hori

denez, Leitzan azken bilkuran moztu bat aurkeztu genuen gai honen harira. Bertan esaten zen bezala, Udalak gure ustez gutxienez zerga guztien %25a kudeatu beharko luke. Gero eta eskumen gehiago ditugu, neurri batean ardura dutenek ez dutelako hartzen, zergen bidezko finantziarioa berriz %6ean dago une honetan; horrela Udalak oso itota daude».

«Gertutik jarraituko ditugu»

Diru poltsaren dekretua aurkezturakoan, hainbat komunikabide eta alderdi politikok, PPren kasu, «ANV-EAeren alkatetzak» aipatu zituzten behin eta berriz.

Hasiera batean herri hauek diru laguntzetatik kanpo geratzea eskatu zuten batzuk; besteek, herri hauei kontrol zorrotzak ezartzeko,

egin beharreko lanetan Espainiako Gobernuaren kartela jarri behar zela aipatu zuen ere izan zen.

ANV-EAeren zerrendetan aurkeztu zen Xabier Zabalok hautetsi independentista, zurrumbilo honen inguruan galdetuta Leitzako alkateak zera dio: «Nik uste guregan zentratu dutela presio hori guztia: gure obrak gertutik zainduko dituztela, dirua non gastatzen den etabar. Beti gaude presiopean. Baina gure aldetik behintzat, herriari begira lan egiten da eta adierazgarria da UPNk eta PPK proiektu hauen alde bozkatu izana. Iragan ostegunean ere, udal bilkuran, aurrekontuak aurkeztu genituen eta eurek alde bozkatu zuten. Orduan, alde batetik daukagu bai, gu munduko txarrenak gara etabar. Eta gero herri barrenean,

deialdi honetan bezala, proiektuak aho batez onartzen ditugu. Guk argi dugu, gero eta gehiago eman orduan eta iniziatiba publiko gehiago egingo ditugula, eta lanean segiko dugula. Klandestinitate-ra ez gara pasako; hori argi».

Proiektuak puntuz puntu

Espainiako Administrazio Publikoaren Ministerioak, proiektuak onartuak izan direla iragartzen duen entitateak, Leitzako bost ekintza edo proposamen argitaratu zituen bere webgunean.

Hauek, Haur Eskolaren erreforma; Alde Zaharreko lurzoriko adokinen konponketa; herri sarreretan bi zeharbide; udaletxe hainbat erreforma, oztopo arkitektonikoen gainditzea eta lehen solairuaren eraberritzea, eta herri barna egin beharreko hainbat proiektu.

Xabier Zabalok alkateak ondoren puntuz puntu azaltzen ditu proiektu bakoitzaren nondik norakoak, zergatiak, baldintzak eta abar.



Haur Eskolan egokitze lanak. A.I.

HAUR ESKOLAREN ERREFORMA: 70.695,02 EURO

«Nafarroako Gobernuak haur eskolen inguruko dekretua atera zuen, 2010. urterako haur eskola bakoitzak bete behar zituen baldintzekin. Nafarroako Gobernuak hobekuntza lanetarako ez du normalean diru laguntzarik ematen, berria eraikitzeko bakarrik, eta dekretu horretara egokitzeko erreforma hauek deialdi honetan sartu genituen: eskuak garbitzeko iturriak, leiho berriak, berogailu sistemaren hobekuntza... Egokitu ezean 2010ean Haur Eskolak aurrera jarraitzeko zailtasunak aurkituko lituzke».



Adokinen konponketa. A.I.

ALDE ZAHARREKO LURZORUA: 67.620,46 EURO

«Printzipioz bi ekintza edo aktuzio ematen ari dira: alde batetik gaizki dauden puntu konkritu batzuen moldatzea eta bestetik, kottxe gehien ibiltzen diren zirkuitoak edo guneak markatu, urratu eta adokinak gehiago iraun dezan bilatuko da, horrenbeste ez mugitze-ko».



Oinezkoentzat espaloia. A.I.

HERRIAN BARN A OBRA EDO EKINTZA TXIKIAK: 65.463,32 EURO

«Puntu honetan oso zailak diren obra txikiak sartu ditugu. Adibidez, saneamenduen inguruko berbideratzeak; Lesakeneako espaloia; Alde Zaharrerako sarrera nagusia; Patxi Arrazola 36ko aparkaleku publikoa; elizara doan bidearen garbiketa eta konponketa...».



Bi zeharbide berri herri sarreretan. A.I.

ALTUERA DUTEN ZEHARBIDEAK: 9.071,20 EURO

«Trafikoarekin arazo dezenteokoa daukagu abiadura dela eta. Bi puntu zehaztu ditugu eta hauetan altuera duten zeharbideak jarriko dira herri sarreretan. Bata Uitzitik datorren bidean eta bestea fabrikako bidean, Sagasti Jatetxearen ondoan. Herri barnean jartzea oso zaila izaten da, araudiak baldintza batzuk dituelako: errebueltak bategatik 50 metroa ezin da jarri... Orduan, kanpotik datorrenaren abiadura jaisten saiatu behar gara».



Udaletxean igogailua. A.I.


UDALETXEAN ERREFORMAK: 298.468,99 EURO

«Oztopo arkitektonikoak gainditzeko udaletxean igogailu bat jartzeko asmoa daukagu. Horretaz gain lehen solairu guztia erreformatu nahi dugu; leihoak, berogailu sistema etabar moldatzeko. Gero jendea galduta ere ibiltzen da eta pixka bat egokitu nahi dugu».



Zerrendan azkena Lizartza

LIZARTZA • Espainiako Gobernuak osatutako diru poltsatik hainbat herri eskatu dituzte diru laguntzak. Tolosaldean, besteak beste ondorengo udalei onartu dizkiete euren proiektuak: Ibarra, Tolosa, Berastegi eta Ikaztegieta. Atzo, Espainiako Administrazio Publikoaren Ministerioak Lizartzaren proiektua onartu zuen. Herriaren erdigunea hobetzeko lanek 107.963 euroko aurrekontua edukiko dute. A.I.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** *Pello Lizardira!* elkarretaratzea Plaza Zaharrean 19:15ean.

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Oargi mendi elkarteak orientazio ikastaroa antolatu du hilaren 11tik 14ra: asteazkenean eta ostiralean 19:00etatik 21:00etara eta larunbat goizean praktika mendian. Karlos Garcia esperientzidun irakaslearekin.

Kultur asteak

■ **Ibarra.** Igandean mendi irteera antolatu dute Zeraingo meategitara Uzturpe ikastolaren Kultur Astearen baitan.

■ **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak 8rako irteera bat antolatu du Balmasedatik San Juan de Berbizekera, Trasmosomos (698 m.) eta Ilso (564 m.) mendiak igoz. Iraupena bost ordu t'erdikoa da. Izen-emateak elkartearen, 943 65 27 89 edo alpinouzturre@hotmail.com.

■ **Villabona.** Aizkardi mendi elkarteak Sunbilla - Aizkolegi (841m) - Legate (870m) - Lekaroz mendi ibilaldia antolatu du hilaren 8rako. Informazioa eta izen-ematea, elkartearen ostegunetan 20:00etatik 22:00etara (649 717182) edo aizkardi@aizkardi.com.

Zinema

■ **Tolosa.** *Perez sagutxo* 2 filma emango dute Leidor aretoan 17:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Batzuk jan, besteak jaurti

TOLOSA ● Egun handiarekin batera amaitu ziren atzokoan San Blas auzoko jaiak. Jende ugari hurbildu zen Tolosako auzora eta giro ederra sortu zen mezaren ostean. Gehientsuenek mokadutxoak jan eta eroskila bete poltsarekin bueltatu ziren etxera. Bien bitartean, ia ate joka dauden Inauteri

abestiak jotzen zitzuten txarangen doinuak izan ziren entzungai megafoniatik. Toka txapelketa ere egin zuten auzokideek eguerdi partean eta trikiti doinuekin esan zioten agur asteburu osoan zehar luzatu diren San Blas jaiak. **IMANOL GARCIA**

A Agurrak



Urte askoan!

Uxue Munduate Zabala (Anoeta). Gaur 2 urte. Muxu handi bat atton-amonen partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

OKINDEGI / KAFETEGIEN SEKTOREAN LIDERRA DEN ENPRESAK NEGOZIO BERRITZAILE ETA KONTRASTATUAREKIN, ERRENTAGARRITASUN HANDIAREKIN LEITZAN LAISTER EGINGO DUEN IREKIERARAKO HARREMANETAN JARRI NAHI DU:

- BEREZKO NEGOZIOA
- KUDEATU NAHI DUTEN PERTSONEKIN
- DENDAKO ARDURADUNEKIN
- SALTZAILEEKIN

Interesatuak harremanetarako gutuna eta CVa bidali ondoko helbidera: posta kutxa 54 - 20115. Astigarraga

hirukide

ANTZERKI
Tlfno: 943 573 948

ZELAIETAK
Tlfno: 943 561 937

KINERGIAK
Tlfno: 943 573 511

www.hirukide.org

KALITATEZKO HEZKUNTZA